SAKANAKO ASTEKARIA • 2016ko azaroak 18, ostirala • 2. aroa • 575. zenbakia

Guaixe.eus

PRES TOKIKOM

#Altsasu

>>8-9

Pintxo-pote burujabea, gure produktuen

>>5

Bakaikuko galdeketan aurretiko botoa, bihar

>>7

Lizarragako San Klemente festak gaur hasiko dira

>>6

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Magali
8 aldiz ZORIONAK!!! Egun ona pasa eta bizkotxo goxoa prestatu sukaldari!!!

Araitz
ZORIONAK txapeldun!!! Eta muxu haundi haundi bat zure familiaren partez. Muaaaaa!!!

Garazi Goñi Andueza
ZORIONAK potxola!! Primeran pasa zure egunean! Muxu asko familiaren partez.

Jon Sarasola
ZORIONAK JON!
4 urte! Muxu potolo bat Miren, aita eta amaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

Azaroa 18-24

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Jimmy Muelles eta Zesura. Azaroaren 18an, ostiralean, 22:30ean Lakuntzako kultur etxean.

Banane Metalik. Azaroaren 19an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Gaztetxean.

Dantza

Udazkeneko jaialdia. Azaroaren 19an, larunbatean, 18:00etan Irurtzungo frontoian. **Urduri eta Orritz dantza taldeak.**

Antzerkia

Buah txabal. Azaroaren 18an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan. **Jon Zubiaga.**

Chefs. Azaroaren 19an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yllana.**

El pájaro prodigioso. Azaroaren 20an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **La Maquiné.**

Ikuskizuna

Hitzek eta doinubek, balen hotsetik hitzen doinura. Azaroaren 19an, larunbatean, 18:00etan eta 20:00etan, Arbizuko udaletxeko bilera aretoan. **Oroimenez Arbizu.**

Ipuin kontalaria

Pontxa eta ipuin kutxa. Azaroaren 24an, ostegunean, 17:30ean Etxarri Aranazko liburutegian. 3 urtetik aurrera. **Jaione Urtasun.**

Zinema

Corazón gigante. Azaroaren 18an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

El hogar de miss Peregrine para niños peculiares. Azaroaren 18an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 20an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

El hombre de las mil caras. Azaroaren 24an, ostegunean, 19.00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Madotz-Akier-Oderitz-Bazkaria. Azaroaren 20an, igandean, goizean Irurtzundik. **Iratxo mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Sorginetxeko trikuharria (50 km). Azaroren 20an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

31. Ferietako argazki rallya. Azaroaren 18tik 29ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Hitzaldiak

Erabakiaren aroan Independentziaren bidea jorratzen. Azaroaren 18an, ostiralean, 19:00etan Bakaikuko udaletxeko auzoan. **Independentistak Sarea. Hizlaria, Txutxi Ariznabarreta.**

Hizketaldiak

Habitat III Konferentzia. Munduko populazioaren banaketa eta garapena. Azaroaren 21ean, astelehenean, 19:30ean Hiriberriko Txitera elkartean. **Astelehen Zoriontsuak.**

Argazkilaritza

31. Ferietako argazki rallyko sari banaketa. Azaroaren 19an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Tailerrak

Dementzia aurreratua dagoenerako estimulazioa. Elikadura, mugitzea eta beste eguneroko jardunetan nola lagundu. Azaroaren 22an, asteartean, 18:00etan Altsasuko jubilatu elkartean. Beatriz Villota (okupazio terapeuta). **Josefina Arregi klinika.**

Bestelakoak

Auzolana Enneco parkean. Azaroaren 19an, larunbatean, 9:00etatik 13:30era Etxarri Aranazko Danbolintxulon.

Zentzumenen arratsaldea. Azaroaren 19an, larunbatean, 18:00etatik 22:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Gozamenez.**

Lakuntzako kultura diagnosiaren aurkezpena. Azaroaren 19an, larunbatean, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxean.

Guraso eta seme-alaben arteko areto-futbol partida. Azaroaren 20an, igandean, 12:30ean Irurtzungo kiroldegian. **Familia Mintzakide.**

Deialdiak

Sorturen birfundazio prozesua. Azaroaren 18an, ostiralean, 19:00etan Irurtzungo udaletxean.

Euskal Presoak Euskal Herrira!. Azaroaren 18an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Atxiloketak salatzeko prentsaurreko masiboa. Azaroaren 19an, larunbatean, 12:00etan Altsasuko Iortia kultur gune parean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Beilatokia toki egokian. Nahiez gero posible da. Azaroaren 23an, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Errepresioaren aurkako herri-batzarrak. Altsasuko Gure Etxean, astelehenero, 19:00etatik aurrera.

HEGAZKIN ISTRIPUKOEN OROIMENEZ: Arbizuko San Juan ermitaren ondoan haritza landatu zuten ostiralean. Hegazkin istripuan hildako hiru frantziarrak gogoratzeko balioko du arbolak. Haien senideak presente zeudela egin zen ekitaldia. Aurretik, ermitan, otoitzerako tartea izan zuten.

ezkaatza >>

» Arakil / Irurtzun

Ederbideaz

Plazaola turismo partzuergoak antolatuta, Ederbidea proiektua aurkezteko jardunaldia egin zen Lekunberrin atzo. Iruña, Donostia eta Lapurdiko hiriburua bizikletaz ibiltzeko bideen bitartez elkartuko dituen egitasmoa da Ederbidea. Horretarako, Bidasoa eta Plazaolako bide berdeak lotuko dira eta txirrindulariak Arakilen eta Irurtzunen barna pasako dira, Europako bide berdeen sarearen zati bihurtuz Egitasmoak 2,4 milioi euroko aurrekontua du eta hiru urtetan eginen da. Hari buruzko informazio eskaera gero eta handiagoa zenez, Ederbidea proiektuari eta bere garapenaren inguruan eztabaidatu, gogoeta egin eta parte hartzeko jardunaldia egin zen. Hala, aurreikusitako ekintzei, turismoari, tokiko garapenari, mugikortasunari, jasangarritasunari eta bestelako batzuei buruz hitz egin zuten dute proiektuan zerikusia duten Pirinio Atlantikoetako Departamentuko, Gipuzkoako eta Nafarroako politikariek, udal arduradunek, teknikariek eta hainbat arlotako teknikariek, sakandarrak tartean.

» Lakuntza

Kulturarteko itxez-itxe arrakastatsua Lakuntzan

Marokoar jatorriko lakuntzarrek merienda ederra prestatu zuten. Argazki galeria: www.guaixe.eus

Jatorri ezberdinetako etxeetan bisitan izan ziren lakuntzarrak, bakoitzaren ohiturak ezagutu eta elkarren arteko harremana sustatzeko asmoz

Festetan, musika lagun, etxez etxe parrandan ibiltzeari deitzen zaio itxes-itxea Lakuntzan. Bada, Txingurriye taldeak ohiturari buelta eman eta Kulturarteko Itxes-Itxea antolatu zuen igande arratsaldean. Hitzordua arratsaldeko bostetan plazan jarri zuten eta bildutakoak hainbat lakuntzarren etxeetara joan ziren. Jatorri ezberdinetakoak ziren lakuntzar hauek. Lehenik eta behin, Magrebeko kulturaren xehetasunak ezagutzeko aukera izan zuten, Marokoar jatorriko familia baten etxea bisitatu eta gero. Euren jantziak ikusi, ohituretaz galdetu eta euren te eta gozogintza paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten lakuntzarrek.

Ondoren, Kaporratz etxera jo zuten. Kaporratz etxeko bajerak modelo desfile baten itxura hartu zuen, alfonbra gorria eta guzti. Senegaldar familia batek euren jantzi koloretsuak erakutsi zizkien bildutakoei, modelo desfile baten bidez. Hainbat lakuntzarrek egin zituzten modelo lanak. Bitartean, senegaldarrek euren jantzien eta ohituren azalpenak eman zituzten.

Hurrengo geltokia Migel Angel Aretaren etxea izan zen. Lakuntzar honek mota guztietako antzineko objektuak bildu eta konpontzen ditu, eta hauen bilduma egiten du. Itxes-itxean bildutakoek gure ohitura zaharren berri izan zuten, Aretak ilusio guztiarekin biltzen dituen objektuen azalpenak eman baitzituen.

Azkenik, Lucas Anduezaren etxean Lakuntzako lehengo ohiturak gogoratu zituzten. Industralizazioa Lakuntzara iristerakoan herria zenbat aldatu zen gogora ekarri zuen Anduezak eta Sakanako historian sakondu zuen, lakuntzarron izaera irekia aipatuz. Bukatzeko, gaztain erreak dastatu zituzten bildutakoek eta kantuan eta guzti aritu ziren.

Kontentu

"Ekimenaren balorazioa oso positiboa da. Aurten ziurrenik beste itxes-itxeren bat eginen dugula pentsatzen dut, Lakuntzako beste etxe eta kontu ezberdinak ezagutzeko" adierazi digu Txingurriye taldeko Izaskun Anduezak.

SAKANA

Etxeko ospitalizazioa Sakanara heldu den urtean iritsiko da

Osasun Departamentuko kontseilari Fernando Dominguezek Etxeko Ospitalizazio zerbitzua Sakanan eskainiko dela jakinarazi du. Dominguez kontseilariak azpimarratu duenez, "Osasun Departamentuak etxeko ospitalizazioaren aldeko apustua egiten du ohiko ospitalizazioaren ordezko gisa, abantaila kliniko asko baititu pazienteendako eta familiendako, bai eta osasun-sistemarako ere". Zerbitzu horrekin, etxean bertan osasun-laguntza konplexua ematen da, baldin eta pazienteak betekizun batzuk betetzen baditu eta zaintzaile baten babesa badu.

Barne Medikuntzako espezialista batek, erizain batek eta ibilgailu batek osatutako taldea da gaixoak bisitatzeaz arduratzen dena. Departamentuak 2017an halako lau talde berri osatuko ditu eta haietako bik Ultzama, Doneztebe, Leitza, Lesaka, Elizondo, Auritz, Agoitz, Zaraitzu, Izaba, Zangoza eta Sakanan ariko dira lanean.

Etxeko ospitalizazioaz

Laguntza-eredu bat da eta, haren bidez, pazienteei bere etxean ospitale bateko zaintza medikuak eta erizaintzako zaintzak ematen zaie ospitaleko azpiegitura jadanik behar ez duten unean, baina oraindik medikuen jarraipena eta laguntza konplexua behar dutenak.

Laguntza-eredu horrek abantaila asko ditu ohiko ospitalizazioarekin alderatuz, susperraldia inguru ezagun eta erosoago batean egiten baita (etxean), senideen laguntzarekin; azken horiek, gainera, ez dute ospitalera joan beharrik eta gauak ere ez dituzte han pasa behar, ospitaleko infekzioak saihestendira, pazienteak ez dira hainbeste desorientatzen, eta errekuperazio funtzionala bizkorragoa da. Gainera, ospitalizazio-mota horri esker, osasun-baliabideak aurrezten dira eta mediku espezialisten eta Lehen Mailako Arretako medikuen arteko koordinazioa hobetzen da.

Herritarrak Osasun-Etxeko itxaron-aretoan. ARTXIBOA

astekoa

Zoila Berastegi

Animaliak

Aztarna bat erdibidean dago. Denboraren orratzek ezin neurtu duten zubi batean: iragan trazu baten oraina da batetik, eta orainak izandako aurrekarien salataria bestetik. Bai; badu aztarnak salataritik. Zerbait kontatzeko bokazioz iraun du; pazientziaz itxaron du; zain; hura irakurtzeko gai diren begien zain. Kobazuloetako iluntasuna apurtzera datozen argi bi.

Bertakoak trazuak dira, ez besterik. Behin margo batez utzitako inpresio bat, islada bat. Bisonteak. Zaldiak. Eta hatz-marketan ditugunak ere trazuak dira, besterik gabe. Pasa den horretan izan dugun erantzunkizunaz mintzo direnak dira. Gure sinadura zintzoena. Baina bada hatz-aztarnen beldur denik ere. Eskuak zikinak izan eta hala ere kontzientziak lasaitu nahi dituztenek maiz erosten dituzte eskularru zuriak. Zuri eta beltz. Ez du maite grisa zebrak. Ez asto, ez zaldi. Ez du hibrido izaerik. Mutur bakoitzari bere lekua emanez jazten da egunero- egunero. Ez dio zuriari beltz izateko eskatzen, ez beltzari zuri. Horiek dira haren arrastoak eta arrasto horiek dira bera, zebra. Zebrak ez du ez izen ez abizenik. Baina emakumea da; zebra emakumea deitzen diote. Eta oso ilun den kobazuloren batean daude bere arrastoak, bi begiren zain. Bien bitartean arnasten jarraitzen du, bere oraingo begirada galduak iraganeko aztarnetan dizdiratzen dutelarik. Inork ez du ulertzen, inork ez daki… oraingoz.

barrutik kanpora

Errefuxiatuekiko konpromisoa

Ehun milaka pertsonek bere lurraldea utzi eta haiekin zerikusirik ez zeukan gerrate jasanezin batetik ihes egin behar izan zuten bizi duin baten bila eta Calaiseko kanpamenduan babesa aurkitu zuten. Orain dela urte bat, gaur egun AHNA elkarteko kideak garen lagun batzuk Calais kanpamendua bisitatzera joan ginenean, imaginaezina zen bizitzen ari garen egoera anker hau. Haien esanetan "ohiana" zen Calais eta ezin genuen sinistu kanpamendua desagertarazi behar zutelako mehatxuak aurrera eramateko gai izango zirenik.

Guk, kanpamenduak desegitekotan, gizalegez eta giza eskubideak errespetatzen egingo zutelako ustetan geunden, baina haien hipokresia eta lotsagabekeria neurriezinak dira. Dirudienez, arrazoiak politikoak dira, hau da, errefuxiatuen arazoak ez ditu botoak ematen eta hauteskundeak aurki izango dira Frantziako Estatuan. Pertsona hauek merkantziak edo animaliak izango balira bezala tratatu dituzte. Non daude Europako demokrazia, giza eskubideen errespetua, giza justizia...? Sufrimendua besterik ez duten persona hauei lagundu beharrean, haien arau eta lege zikinak erabiltzen dituzte sufrimendua areagotzeko.

AHNA elkarteak bere laguntza eskaintzeko eta Europako agintarien erabaki krudelen kontra borrokatzeko konpromisoa adierazi nahi du. Pertsona hauek, errefuxiatuak, ez dira haien lurraldeetan pairatzen ari diren gerrateen arduradunak.

AHNA (Ayuda Humanitaria Navarra en Acción)

objetibo tik

Moda desfilea Lakuntzan: Igandean Lakuntzako Kaporratz etxeko bajera glamourrez jantzi zen, alfonbra gorria eta guzti. Txingurriye taldeak antolatutako Itxes-itxe kulturalaren barruan, senegaldarrek euren kultura, ohitura eta janzkera erakusteko desfilea egin zuten. Jatorri ezberdineko lakuntzarrek jantzi zituzten euren arropak, txalo artean, arrakasta handiz.

objetibo tik: gutunak@guaixe.net

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira.

Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira.

Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko.

Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko:

Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.

hara zer dien

Nafarroako II. Gazteria Plana 2017-2019, Altsasun ere bai

Nafarroako Gobernu berriak legegintzaldiko lehendabiziko egunetik ekin zion lanari gazteriaren arloko politikei bultzada bat emateko. Egin beharreko lanen artean, II. Gazte Plana egitea zen lehentasunetako bat.

Jakin bazekiten zer nahi zuten eta nola nahi zuten; benetan parte-hartzailea izango zen metodologiaren alde egin nahi zuten. Era berean, esaten zuten, logika osoz, plan erreala eta dauden aurrekontuekin eta baliabideekin bat etorriko zena nahi zutela, eta, jakina, etorkizunera begira egongo zena.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, plan honetako arduradun nagusia den aldetik, aurreko legegintzaldian gazteriaren arloan egindako asmo oneko aitorpen hutsekin eta fruitu eskasekin hautsi nahi zuen.

Gauzak horrela, II. Gazte Plana prozesu parte-hartzailean erabat murgilduta dago eta, esan dezakegu, benetan parte-hartzailea izaten ari dela. Nafarroako gazteak —politikan interesik ez dutela askotan esaten bada ere— eredu dira beren parte-hartzeagatik eta inplikazioagatik. Nafarroa osoko gazteek hartu dute parte, altsasuarrek ere bai (datu zehatzak ezagutzeko jo ezazu udalaren web-orrira).

Uste osoa dugu Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteek erakutsi duten erantzukizun berarekin jokatuko duela prozesuan, eta 2017ko urtarrilaren hasieratik erantzungo diela Nafarroako gazteek egindako eskaera eta proposamenei, neska-lagunei aukera gehiago eta bizitza bidezkoagoa, orekatuagoa, berdintasunezkoagoa, justuagoa eta osasungarriagoa emateko. Espero dugu gazteriaren arloko politika hauek gazteen bizi-kalitatea, Altsasukoena ere bai, hobetzeko balio izatea.

Altsasuko Gazteria Zerbitzua

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Joana Lizarraga Marques
ZUZENTZAILEA: Miren Alonso Razkin
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BEILATOKIEN ENPRESAREN AURKEZPENA: Izarra ehorztetxeak ostegunean aurkeztu zen. Mikel Idoateren eta Mikel Legarraren enpresak 3 milioiko inbertsioa egin du 5 beilatoki irekitzeko. Jakinarazi zutenez Etxarrikoak gela bakarra izanen du eta Altsasukoak, berriz, hiru.

sakanerria >>

SAKANA

Pintxo-pote burujabea, Sakanako produktuen balioa aitortzeko

Ibarreko produktuekin egindako I. Pintxo-pote herri lehiaketa 14 tabernetan izanen da larunbatean; pintxoa eta potea bi eurotan

Sakanako Garapen Agentziak, Belardi tokiko ekoizleen elkarteak eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak sakandarrak eskualdeko tokiko produktuekiko sentikor bihurtzeko kanpaina martxan jarri dute. Eta horrela sortu da I. Pintxo-pote burujabea. Antolatzaileek ekimen horrekin herritarrak kontzientziatu eta, aldi berean, tokiko produktuez gozatzeko gonbidapena luzatu dute.

Ibarrean bertan eta Sakanako produktuak kontsumitzeko makina bat arrazoi eman dizkigute: "tokiko ekonomia babestea, lanpostuak sortu eta mantentzea, lurren eta negozioen garapen jasangarria sustatzea, nekazari eta abeltzainen ahalduntzea, monopolioek jatorrizko prezioak aldatzea eragoztea, garaiko produktuak jatea, elikagaiak nondik datozen ezagutzea, ingurugiroa zaintzea, kalitatezko produktuak jatea, ingurumeninpaktua txikiagotzea... eta nola ez, askoz osasuntsuago eta zaporetsuago elikatzea".

Pintxo sakandarrak

Sakanan ekoiztutako txekor haragia, txerrikia, barazkiak, esnekiak, karakolak, arrautzak, ardi gazta, eta abar pintxoen lehengai paregabeak bihurtuko dira. Ibarreko bizilagunek gainera, pintxo hoberena hautatzeko aukera izanen dute tabernetan bertan aurkituko dituzten txarteltxoetan botoa emanez. Hala egiten dutenek 40 eurotan baloratutako tokiko produktuez osatutako hiru saskien zozketan sartuko dira.

Ekimen horretarako tabernak honako ekoizleen produktuez hornitu dituzte: Albi, Ibarborda, Balda Artola, Uharte, Sarabe, Utxama, Juananeko gaztak, Jeingenekoa esnekiak, Aralarko txekor haragia, Ubei euskal txerrikia, Legarbe karakolak eta barazkiak eta Ollaondo arrautzak.

Belardi tokiko ekoizleen elkarteko ordezkariak eta antolatzaileak. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

Taberna partehartzaileak

Irurtzun: Pikuxar Euskal txokoa, Roman eta Plazaola Hotela
Etxarri Aranatz: Derry eta Iturri Eder
Altsasu: Lezea, Urtzi, Xume, Gautxori, Arkangoa, Koxka, Las Vegas, Biltoki eta Kaixo

» Altsasu

Materia organikoari bide emateko, informazioa

Baratzakobide plazako lokomotoran informazio bulegoa zabalik egonen da astelehen, asteazken eta ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Altsasuarren kezkak eta iritziak jaso dituzte ere. 5. edukiontzia ezartzen den bitartean zabalik egonen da bulegoa

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko Beñat Agirre Bengoetxea izan da asteleheneko eta astearteko hitzaldietan argibideak eman dituenetako bat. Berak azaldu duenez, bi erronka nagusi atzeman dituzte Altsasun. Batetik, materia organikoa kudeatzeko bidea ematea. Hori, gehienbat 5. edukiontziaren bitartez izanen da.

Altsasun beste erronka da hondakinak ongi bereizteko informazioa banatzea. Horren inguruan hitzaldietan bi grafiko argigarri azaldu dituzte: edukiontzi berdean soilik birziklagarria ez dena %20 da; gainontzekotik materia organikoa %40 da eta gainerako %40 beste edukiontzi batzuetan egon beharko luke. Edukiontzi horian jasotzen diren hondakinen erdia soilik dago egon beharko lukeen tokian. "Horrek erakusten digu beharrezkoa dela informazioa ematea, jendeak edukiontzi bakoitzean zehazki zer bota behar den jakin dezan". Horren arrazoiaz galdetuta, Agirrek azaldu du hondakinak banandu nahi ez duten batzuk egon daitezkeela, baina, kasu askotan, zer-non bota behar den ezjakintasuna izanen dela.

Hainbat altsasuar izan dira hitzaldietan. Bulegoa astelehenean zabalduko da.

Materia organikoaz

Etxeetan sortzen diren hondakinen %40 edo zerbait gehiago da materia organikoa. "Dena ongi eginda ere, materia organikoa ez badugu banatzen oso zaila da birziklatze tasa asko handitzea". Auto eta auzo konposta egiten duten altsasuarrak badaude dagoeneko. "Orain aukera hori zabaldu nahi dugu. Konposta egiteko aukera eskainiko dugu, baina erronka nagusia da materia organikoa banatzen hasteko 5. edukiontzian ahalik eta jende gehienak izena ematea".

Agirrek aurreratu duenez, Nafarroan sortzen den hondakin kopuruaren arabera ordaintzeko proposamena aurki jarri daiteke indarrean. "Berdin jarraitzen badugu hondakinengatik ordaintzen dugun tasa pixkanaka handitu eginen da".

5. edukiontzia

Agirrek azaldu digunez, ezarpenari buruzko ideiak dituzte, baina informazio prozesuan jasotako iritzien arabera haiek moldatzeko aukera dago. Hala ere, argitu digu edukiontzi berri marroiak egungoen ondoan egonen direla. "Bosgarren edukiontzia itxia izanen da. Bertan hondakinak botatzeko jendeak izena eman beharko du eta hura zabaltzeko giltza jasoko dute. Zergatik itxia? Bereizten den materia organiko hori ongi bereiztua egotea nahi dugu. 5. edukiontzi irekia jarri duten tokietan han egon beharko ez luketen %20-30 inguru hondakin daudelako. Gure asmoa da 5. edukiontzian jasotakoa Sakanan eginen den konpostatze plantara eramatea. Horregatik, ahalik eta kalitate oneneko materia organikoa jaso nahi dugu".

Materia organikoa edukiontzira poltsa konpostagarrietan bota beharko da . "Txukunago izateko. Poltsa horien banaketa ez dugu guztiz zehaztu". Edukiontzia Altsasuko kaleetan ikusteko bospasei hilabete pasa beharko dira.

%27tik %65era

2017ko abenduaren 31rako Altsasun hondakinen bereizketa maila hori lortu nahi da. Jauzi hori Altsasuko Udalak eta Mank-ek adostu dute. Nafarroako eta Europako legediek ezartzen duten %50eko kopurua gainditzen da eta Sakanako gainontzeko herrien %80ra gerturatzen da. Europako legedia betetzen ez duenak, isunak jasotzeko arriskua izanen du etorkizunean, hori nola bideratuko den oraindik ez badakite ere.

Amaya
Okindegi-gozotegia
okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...
ARAIA 945 314 572
ALTSASU
• Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
• Zumalakarregi plaza 948 468 026
• Amaia supermerkatua
Otadiako Kristo Deuna plaza,19. 948 562 185
• Gipuzkoa 4
• San Juan kalea 50. 948 564 053
• Netto 659 288 401

ALTSASU

OLAZTI 948 468 755

ETXARRI ARANATZ 948 461 660

» Lizarraga

San Klemente festen txanda

Asteburu guztirako ekitaldiak prestatu dituzte. ARTXIBOA

Hotzarekin ospatzen diren festak iritsi dira Lizarragara. Egitarauari erreparatuta tokiko produktu bati egin diote tokia lizarratarrek: ardi tripotei. Tripoteo moduan eskainiko dituzte, pintxopote moduko batean izanen da, gaur, eta euro baten truke eskuratu daitezke. Estreinako aldia denez, 15 kilo ingururekin probatuko dute. Tripoteoaren ideia festak prestatzeko kontzejuaren eta lizarratarren arteko bilera batetik sortu zen. Bilera hartan festak egoki antolatzeko lantaldeak sortu ziren eta haietako bat tripoteoaz arduratuko da. Lizarragan aspaldiko ohitura da San Klementetarako etxe guztietan ardi tripotak egitea, hori izaten da etxe guztietan festetako janari nagusia.

Jateko gehiago ere izanen da San Klementetan. Gaurko kontzertuaren aurreko afarian 40 bat pertsona elkartuko dira. Biharko kopurua bikoiztu eginen da. Bestetik, festetako kartelean aurtengo balkoi politenaren argazkia argitaratu da. Agorrilean ospatu zen Arleze egunean jaso zuen saria Maribel Senarrek.

Egitaraua

Azaroak 18, ostirala
19:00etan Pintxo potea: Lizarragako ardi tripota, frontoian.
22:00etan Herri afaria elkartean
00:00etan Kontzertua elkartean: Tokan2lapolla.

Azaroak 19, larunbata
12:00etan Kalejira Amalur taldearekin.
13:00etan Meza nagusia.
14:00etan Auzatie.
17:30ean Haur eta helduendako jolasak, puzgarriak txikienendako.
19:00etan Txokolate-jana.
19:30ean Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.
22:00etan Herri afaria frontoian.
00:00etan Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.

Azaroak 20, igandea
12:00etan Kalejira Amalur taldearekin.
13:00etan Meza nagusia.
14:00etan Auzate eta herriko zaharrei omenaldia auzoan.
16:30ean Haurrendako tailerrak.
17:30ean Mus eta briska txapelketa Azi-iturrin. Txapeldunendako saria: Errigorako saski bana.

Asteburu horretan zehar, Azi-iturrik zozketa baterako tiketak salduko ditu. Saria: Errigorako saski bat.

Azaroak 23, asteazkena. San klemente eguna
13:00etan Meza.
14:30ean Jubiletuen bazkaria.

» Irurtzun

Udarik gabeko San Martin

Hotza eta euria zutela ospatu zituzten irurtzundarrek patroiaren omenezko festak, San Martin. Ostiralean, euriagatik, erraldoi eta buruhandien konpartsa frontoian egin zuen agerraldia. Arratsaldean, Iratxo elkarteak ohikoa den mus txapelketa hartu zuen. Muslari onenak Martin eta Nazario Legarra izan ziren, finalean Ortiz eta Domingo garaitu baitzituzten. Kontsolazio finalean Amaia eta Onartz, Kontxi eta Asensio baino hobeak izan ziren.

Musika ugari izan zen festetan: ska-punk doinuak, elektronika, plazako dantzaldia baita adar talde baten kontzertua. Ospakizuna igandeko artisau azokarekin osatu zen. Artisauen erdiak irurtzundarrak zituen artisautza feriak jendetza erakarri zuen.

Eguraldiagatik artisau azoka frontoian egin behar izan zen.

» Burunda

Ikastolatik unibertsitatera aitona-amonekin

Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XVI. Astea ospatu zen ostiral goizean. Hori dela eta, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP), Zientzia eta Teknologiarako Espainiar Fundazioaren (FECYT) laguntzaz, hainbat jarduera antolatu zituen. Euskarazko jardueretako batean, Aitona-amonarekin Unibertsitatera, Iñigo Aritza ikastolako DBH 4ko bost ikaslek eta haien aitonamonek parte hartu zuten. Zehazki, landareen fotosintesiari buruzko lantegi batean parte hartu zuten.

NUPeko Natura Ingurunearen Zientzien Saileko Joseba Aldasoro Galan, Miriam Gil Monreal eta Amaia Seminario Huarriz ikertzaileek gidatu zuten lantegian. Burundar gazte eta helduak zenbait landare (ilarrak, artoa, garagarra, letxuga gorria eta espinakak) erabili zituzten fotosintesia aztertzeko. Fotosintesia hostoetan gertatzen da: klorofilak, eguzki-argia harrapatzen duen landare-pigmentu nagusiak, eta hostoek xurgatutako karbono dioxidoak azukreak produzitzen dituzte, eta horixe da, hain zuzen, haien elikagaiaren oinarri nagusia. Prozesu horretan, oxigenoa ere ekoizten da, eta hostoek askatzen dute.

Iñigo Aritza ikastolako parte-hartzaileak, euren aiton-amonekin. NUP

Ikasleek eta adinekoek fotosintesia hobeki ezagut zezaten zenbait esperimentu egin zituzten laborategian: likido-kromatografia, landareetako pigmentuak bereizteko; mikroskopioaren bidez kloroplastoak eta estomak behatu; almidoia (landareen erreserbakonposatu bat) tindatu; eta fotosintesia neurtu.

» Etxarri Aranatz

Auzolanak Ennecon

Etxarri Aranazko Udalak eta Nafarroa Bizirik fundazioak akordioa sinatu zuten pasa den ostegunean. Udalak fundazioari lurren erabilera 35 urterako utzi dio. Haritzaren memoria parkearen proiektuaren administrazio bidea bukatuta, eraikuntzarenari helduko diote orain. Eta hor auzolanak pisu handia izanen du. Horretarako, hainbat lan batzorde sortuko ditu fundazioak.

Enneco, haritzaren memorian parkea boluntarioen laguntzari esker gauzatzen ari da pixkanaka. Herenegun parkean barna informazio panelak jarri zituzten. Larunbaterako eguraldi iragarpenak eguraldi ona agindu dutenez, auzolan berria deitu dute. Helburua estalpea eraikiko den tokian hasiko zuloa despeditzea. 9:00etatik 13:30era bitartean izanen da auzolana. Parte hartu nahi duenak arduradunarekin jarri behar du harremanetan 676 865 239 telefonoaren edo auzolanaenneco@hotmail.com e-posta bidez (Karlos). Parte hartzerko gonbidapena luzatu diete sakandarrei.

ENNECO

» Arbizu

Udalari 158.000 euroko laguntza

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi duen foru legearen bidez, Arbizuko Udalari 158.000 euroko kreditu berezia emango zaio. Utzubar industrialdearen 3 faseko berdegunean, 4x4 proba egiten den tokian, lurrak ondoko larreetara irrist egin zuen eta ondoko enpresa kaltetu aurretik udalak lur mugimendua gelditzeko harri-lubeta egin zuen. Inbertsio handiegia zenez, gobernuari diru-laguntza eskatu, eta lege bidean eginda, orain jasoko du. Udalak egindako inbertsioaren %80 jasoko du.

» Bakaiku

Galdeketarako botoa aurretik emateko aukera bihar

Bederatzi egun falta dira erabakitze eskubidearen inguruko galdeketa egiteko. Bakaikuarrek hautetsontziekin hitzordua dute azaroaren 27an, domekan. Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi duzu? galdera erantzuteko gonbidapena egin du Gure Haitzak, Bakaikuko Gure Esku Dagok. Eguna iritsi aurretik botoa eman nahi dutenek bihar izanen dute horretarako aukera. Gure Haitzak-eko kideek hauteslekua San Juan plazan kokatuko dute eta nahi duten bakaikuarrek 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara botoa emateko aukera izanen dute.

Galdeketari buruzko kanpaina atzo abiatu zuen elkarte sustatzaileak. Elkartean hainbat bakaikuar elkartu ziren eta, auzolanean, herritarrei bidaliko dizkiegun boto-txartelak eta galdeketaren inguruko informazioa jasoko dituzten gutunak prestatu zituzten.

Bakaikuarrek era edo mota guztietara eraman dute aldarria, hemen tarta bat.

Asteburuko hitzorduak

Galdeketak badu bere kanta. Eta galdeketari babesa azaltzen dioten 100dik gora bakaikuarrek abestiaren bideoklipean parte hartu dute. Hartan herritarrak "irribarretsu kantan eta dantzan" agertzen direla jakin dugu. Bideoklipa larunbatean, 19:30ean, aurkeztuko dute. Domekan, berriz, 1979ko hauteskundeetatik gaur egun arte Bakaikuko Udalean izandako hautetsiek agerraldia eginen dute. 13:00etan eginen den agerraldian hautetsi bakaikuarrek manifestu bat publiko eginen dute. Bestalde, Independentistak Sareak antolatuta, gaur, 19:00etan, Txutxi Ariznabarretak Erabakiaren aroan Independentziaren bidea jorratzen izenburua duen hitzaldia emanen du udaletxeko auzoan.

Udalak herri galdeketa txalotu du

"Norbanakoaren berezko eskubidea da erabakitzeko eskubidea eta oraingoan aukera dugu herritar guztiok bide horretan urrats garrantzitsu bat emateko".

Bakaikuko Udalak adierazi du hilaren 27rako herritarrek antolatutako galdeketa txalotzen duela. "Erabakitzeko eskubidea aldarrikatu eta praktikan jartzeko ariketa demokratikoa dela deritzogu". Horrekin batera, udalak bakaikuarrak egun horretan bozkatzera animatu ditu, "aukeren artean gustukoena aukeratuz eta guztion artean erabaki dezagun geure herriaren etorkizuna". Herenegun egindako bilkuran hartu zuen udalak erabakia.

Onartutako mozioan udalak argudiatzen duenez, "azaroaren 27an erabakitzeko eskubidea ardatz hartuta, herritar guztiok gure iritzia emateko aukera historikoa izango dugu". 2014tik Bakaikuko Gure Esku Dagok erabakitze eskubidearen alde antolatutako ekimenak aitortu ditu (giza katea, oihalekin sortutako hautetsontzia...). Taldeak aurten egindako jarduerak "herritar anitz eta ugariren topaleku" bihurtu direla gaztigatu du udalak: "146 sinadura bilduz, mosaikoak, argazkiak, bideoak, bazkariak... ekitaldi jendetsuz lepo joan da urtea".

SAKANA

LABen "osasun onaren" adierazle da egoitza berria

Irurtzunen eta Etxarri Aranatzen egoitzak izan ondoren, Altsasun kokatu zuen LABek ibarreko egoitza. Sindikatu abertzalearen Leitzaldea, Larraun eta Sakanako egoitzaren Altsasuko kokapen berria mustu zuten ostiralean. Altsasuko San Juan kalean dago. Sakanako LABeko idazkari Gaizka Uhartek azaldu digunez, egoitzaren aldaketa sindikatuaren garapenarekin batera doala. "LAB sindikatu txikia da, 40 urteko historia duena. Sindikalgintzan pausoak ematea zaila eta konplikatua izaten da". Aurten LABek Nafarroako langilearen %15 ordezkatzea lortu duela nabarmendu zuen Uhartek. "Aurrenekoz ordezkaritza nagusiko sindikatua gara. Horrek aukera ematen du hitzarmen eta akordioetan indar gehiagorekin egoteko, legeak horrela agintzen duelako".

Sakanan LABek langileriaren %38 ordezkatzen duela jakinarazi zuen Uhartek. "Urte askotan egindako lanagatik da hori". Haiek eta ELAk ibarrean 67na delegatu dituztela azaldu zuen. "Sakanan indar egonkortu eta sendoa gara. Egia da horrek eskatzen duela salto bat ematea eta, pixka bat, sendotasun hori kalean erreferentzia bat izatea". LABek kalean egoteko helburua du eta egoitzaren kokapen berriak, "agian kalean egon daitezken arazo eta borroka guztietatik gertuago egon gaitezke".

LABek Sakanan osasun "ona" duela azaldu du Uhartek. "Erronka gogorra izan dugu. Sakanako enpresen izaera aldatu egin da. Ibarrean, tradizionalki, enpresa batzordeetan dagoen sindikatua izan gara, baina enpresa txikietara iristeko zailtasunak izan ditugu. Gaur egun enpresa txikiak handiak baino gehiago dira. Itxiera guztiekin erronka hori ere gainditu dugu, hau da, gure gehiengoak hobetzea lortu dugu eta enpresa txikietan sartu".

LABen 25 urte luze afiliatuak daramatzatenek zapia jaso zuten.

Egoitzaz

LABen Sakanako egoitzan zerbitzu berak eskaintzen segituko dute, baina lege-aholkularitza indartuko dutela jakinarazi du Uhartek. "Afiliatuendako badugu. Baina Sakanan dugun ardurek, enpresan ditugun gehiengoek, aholkularitza sendoago bat egotea behar duela uste dugu. Baita langileen ordezkariek lan egiteko toki egoki bat izatea ere".

Bulegoak bi solairu ditu eta behean batzarrak egiteko aukera izanen dute. Uhartek azaldu duenez, "gure asmoa da LABen sailek eta delegatuek ez ezik, herriko eragileek lekua izatea. Haiekin elkarlanean aritzeko. Egoitza herriari, herrian dauden kezkei eta borrokei zabalik egotea nahi dugu".

Altsasuko ferietako liskarraren ondorengoa

Zazpi espetxeratu ferietako liskarragatik

Espainiako Auzitegi Nazionaleko 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegiaren aginduz atxilotutako zortzi altsasuarretatik zazpi behin-behinean preso sartu dituzte. Madrilgo Soto del Real (bost) eta Alcala Meco (bi) espetxetan daude Iñaki Abad, Oihan Arnanz, Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea, Adur Ramirez de Alda, Jokin Unamuno eta Aratz Urrizola. Fiskaltzaren eskaera aintzat hartuz, "izaera terrorista duen lesio delituak" eragitea egotzi eta zazpiendako baldintzarik eta bermerik gabeko espetxe-zigorra ezarri du. Zigor Kodeko 573 bis artikuluak 10 eta 15 urte arteko espetxe zigorrak aurreikusten ditu.

Atxilotuek ihes egiteko arrisku handia dagoela argudiatu du Lamelak. Baina atxilotutako guztiek aurretik adierazia zuten Nafarroako Lurralde Auzitegian deklaratzeko borondatea. Lamelak ferietako liskarrean "zuzenean parte hartu izana" leporatzen die.

Beste hiru atxilotu aske utzi ditu epaileak, uste baitu erasorik egin ez zutela. Hala ere, bi astean behin epaitegian agertu beharko dute eta pasaportea kendu die. Identifikatutako beste biak adingabekoak dira.

Herenegun udaletxe aurrean ordu bateko kontzentrazio isila egin zuten 1.000 pertsonek.

Atxiloketak

Kalez jantzitako poliziak edo guardia civilak zirela ohartu eta haien eta altsasuar batzuen artean aurrez aurrekoak izan ziren joan den astean. Horren ondoren, Astelehenean, 8:00ak aldera. izan zen Guardia Civilaren sarekada eta zortzi altsasuarren atxiloketa: Altsasun hiru eta bana Aguraingo bidean, Ordizian, Iruñean, Gasteizen eta Madrilen izan ziren atxiloketak. Beste baten etxera ere joan ziren Guardia Civilak, baina ez zegoen etxean. Kalez jantzitako agenteek egin zituzten atxiloketak, baina Altsasun 5 patrol izan ziren ere. Atxilotuetako asko ikasleak dira eta ikastetxean edo harako bidean atxilotu zituzten.

Ausiki, hozkatu hitzaren sinonimo batekin izendatu du Guardia Civilak sarekada. Atxiloketen berri izan bezain laster euren senideak azkar antolatu eta autobus batean Madrilerako bidea hartu zuten.

Espainiako Barne Ministerioak zabaldutako oharrean bi Guardia Civilek eta euren bikoteek 40-50 pertsonen "talde erasoa" jasan zutela nabarmentzen du eta agenteek "mehatxuak eta irainak" jaso zituztela. "Erasoak ETAk eta legez kanporatutako KASek eta EKINek sortutako Alde Hemendik dinamika iraunkorrean kokatzen dira; Estatuko Segurtasun Indarrak eta armada Hego Euskal Herritik alde egiteko exijitzen duena. Altsasun dinamikak Ospa mugimendua izena hartzen du, 2011ko irailaren 3an Erregearen diskurtsoa ekitaldiarekin hasi eta hurrengo urteetan Ospa egunarekin segitu duena".

Epailearen autoa

Liskarren ondorioz identifikatutako 12 pertsonak Ospa mugimenduarekin lotu zituen Lamelak ostiralean zabaldutako autoan. Idatzi horretan epaileak dio hiru "mugimenduaren sustatzaile nagusiak" liratekeela eta gainontzekoak "mugimenduko partaidetzat" jo ditu. Epailearen iritziz, Altsasuko bi guardia zibilek eta haien bikoteek salatutako liskarra "jazarpen eta beldurrezko kanpaina" baten ondorio da, "guardia civilek herritarrekin harremanak izatea saihesteko". Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak uste du terrorismo delitua egon daitekeela, uste baitu liskarra "Estatuko Segurtasun Indarrak beldurrarazi eta Euskal Herritik alde egin dezatela lortzeko" asmoz egin zutela. Epaileak gaineratu zuenez, bi agenteak "larriarazteaz" aparte, erasoaren helburua Guardia Civileko kideak, haien senideak eta Altsasun Guardia Civila babesten duten herritarrak beldurraraztea izan dela.

Erreakzioak

Altsasuarrak bitan atera ziren kalera atxiloketak salatzera astelehenean: udaletxe parean eguerdian egindako kontzentrazioa eta gauean 1.500 pertsona elkartu zituen manifestazioa. Asteartean 2.500 pertsonetik gora salatu zituzten espetxeratzeak. Asteazkenean, berriz, islitasunean ordu bateko kontzentrazioa egin zuten udaletxe parean.

Azken hilabetean izan diren gertakarien inguruan Koxka tabernatik jasotako babesagatik eskerrak eman nahi dizkiete altsasuar guztiei, Sakanari eta Euskal Herriari. Aldi berean, Koxka tabernakoek atxilotuen senideei elkartasuna adierazi diete, "gure herria sufritzen ari den polizia eta hedabideen muntaia" salatzearekin batera. Esker ona berretsiz eta "gora Altsasu!" esanez bukatzen da tabernakoen oharra.

Bestalde, Zelandi eskolako langile batzuk, Altsasun azken egunetan emandako egoera dela eta, atxilotuekin, familiekin, lagunekin eta momentu honetan sufritzen ari direnekin, elkartasuna adierazi dute.

Herenegun Javier Ollo Martinez alkateak eta Uxue Barkos Berruezo lehendakariak bilera egin zuten Altsasuko udaletxean. Barkosek adierazi du beharrezko jotzen zuela Ollorengana etortzea, altsasuarrei Nafarroako Gobernuaren elkartasuna babesa azaltzera, gertatutakoagatik Altsasu kaltetu handiena izan baita. +www.guaixe.eus

Izko: berdin zaie epaitegiko prozeduratan munduko irregulartasun guztiak egitea

Espainiako Auzitegi Nazionalean izapide mordoa egin behar izan zituela eta preso sartutako altsasuarrekin egoteko aukerarik ez zuela izan azaldu digu euren abokatu Amaia Izkok. Gauza gehiago ere.

Aurretik identifikatuak zeunden baina atzo berretsi behar ziren. Nola joan zen?

Diligentziak berak ez zuen inolako zentzurik, aldez aurretik argazkiekin eta aurretik ezagutzen dituzten identifikazio saio batean ezagutzea munduko gauzarik errazena da.

Boluntarioki aurkeztu ziren bi gazte, aurretik egin bezala. Bata kartzelara, bestea aske. Zergatik?

Aske gelditu denaren kasuan hasieratik ez da garbi egon zehazki zer leporatzen zioten. Bi pertsonek identifikatu zuten, baina hori herenegun ez zen berretsi. Adurren kasuan bestelakoa izan zen dena. Parte hartu zuela, horretan tematu ziren, nahiz eta berak hasieratik ukatu zuen. Nahiz eta bere borondatez epaitegira joan hori nahikoa ez dela eta ihes egiteko aukera dagoela eta kartzelaratzea behar-beharrezkoa dela esaten dute. Inongo zentzu juridikorik ez duen erabakia da.

Gainontzeko seien espetxeratzea ere antzekoa, ezta?

Bai. Adurren kasuan argiago geratzen da egoera. Iruñeko epaitegian egon zen bere kabuz deklaratu nahian, eta astelehenean bertan Madrilera jaitsi zen. Herenegun berriro. Borondatea argi geratu zen. Baina borondate hori bera azaldu zuten guztiek. Horregatik joan ziren Iruñeko epaitegira, deklaratzeko prest.

Auzipetutako bi adin txikikoen egoera zein da?

Besteen modura identifikatu dituzte. Ikusi beharko dugu beraien prozeduran, irekitzen baldin badute eta ikusten baldin badute pertsona hauen kontra zantzuak daudela, zer eginen duten. Pertsona hauen kontra prozedura bat zabaltzeko arriskua dago, prozedura horretan inputatzea eta egundoko akusazioekin topatzea. Hala ere, esan nahiko nuke zer arinkeriaz zein modutan erabili diren pertsona hauen datuak, nola barreiatu diren hedabideetan. Hori guztiz debekatuta dago.

Auzia Madrilera eramateko erabakiari helegitea jarri zaio Iruñean, ezta?

Bai. Hasieratik hitz egiten ari gara irregulartasun asko izaten ari direla prozedura honetan. Izan ere, hemen erabaki politikoa hartua dago; lastailaren 15ean hartu zen. Orduan, erabaki politiko hori burura eraman behar da. Horretarako, berdin zaie epaitegiko prozeduratan munduko irregulartasun guztiak egitea. Horietako bat da badagoela auziaren gaineko konpetentziari buruzko erabaki bat Iruñean hartua dago, baina erabaki horri helegitea aurkeztu zaio. Oraindik Nafarroako Lurralde Auzitegian aztertu behar da Espainiako Auzitegi Nazionala edo Iruñekoa eskuduna den. Hori guztia zehazteke dagoen bitartean begira non dagoen prozedura.

Espetxeratze aginduei ere helegitea aurkeztuko diezue?

Jakina. Egin behar den aurreneko gauza da alegazioak egin eta helegitea jarri, beste epaileek aztertzeko. Pentsatzen dugulako inolako lege-oinarririk eta kausan dauden elementuetan inongo oinarririk ez daukala.

Bidezko epaiketa baterako aukera izanen da?

Gauzak doazen moduan, argi eta garbi: ez! Espainiako Auzitegi Nazionalean segitzen badu, zenbait komunikabidek, zenbait politika eta instituzio arduradun segitzen badute egiten ari diren lintxamenduarekin, hemen ez dago aukerarik ez defentsarako ez berme guztiak izan behar dituen prozedura izateko, ez benetan termino justuetan eta zuzenbide terminoetan auzi hau ikusteko. +www.guaixe.eus

Perez eta Cid: egiten ari direna ez da zuzena

PSNk Altsasun dituen bi zinegotziek herenegungo bilkuran argitu zuten euren izenean bozkatu zutela eta ez alderdi sozialistaren izenean. Juan Migel Perez Hurtado bozeramaileak azaldu zuenez, bozeramaileen batzordeak onartutako adierazpena babestu ondoren PSNk zuzendaritzak ezeztatu egin zuen. "Halakoekin ez daude ados. Ez dugu alderdia honetan nahasi nahi eta, horregatik, erabaki dugu botoa gure izenean ematea". Hartutako erabakiak ondorioak izanen dituen ez dakiela azaldu digu Perezek: "Iurralde batzorde betearazleak baloratu beharko du. Jabetu behar dute Altsasuko familien onerako ari garela hau egiten". Perezek nabarmendu duenez, "herri honetako zinegotzi gisa ardura dugu eta kontzienteki ari garela uste dugu". Altsasuko talde sozialistaren babesa dutela gaineratu du zinegotziak. Plenoaren ondoren zinegotzi sozialistek senideen esker ona jaso dute. Besarkadaren bat ere izan da.

Altsasuko ferietako liskarraren ondorengoa

#ALTSASU

Lelo hori izanen du azaroaren 26an, larunbatean, 13:00etan Altsasuko Udalak, atxilotuen senideek eta herritarrek antolatutako manifestazioak

Ferietako liskarra eta ondorengo atxiloketak direla eta, Altsasuko Udalaren gehiengoak, 13tik 12 zinegotzik, erakunde-adierazpena onartu zuten ezohiko bilkuran herenegun. Geroa Baik, EH Bilduk, zinegotzi sozialistek euren izenean eta ez alderdiarenean eta Goazen Altsasuk aldeko botoa eman zuten. Kontra UPNko zinegotziak bozkatu zuen. Alderdi eta koalizioetako bozeramaileen artean, txandaka, irakurri zuten onartutako testua.

Familiaren sentipenarekin

Altsasuko Udalak, lehenik eta behin, "astelehenean atxilotutakoen familien sentipena gure egiten dugu; defentsarik gabe, babesgabe, eta seme-alaben etorkizunagatik oso kezkatuta sentitzen dira, gertakariak gehiegi puztu direlako eta Auzitegi Nazionalak gertakariak terrorismo ekintzatzat jotzean neurri gabeko zigorrak bete ditzaketelako".

Hori dela eta, Altsasuko Udalak Nafarroako erakunde guztiei (gobernuari, legegileari eta epaitegiari) "babesa" eskatu die gertakariak Iruñeko 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegian epaitu daitezen. "Han hasi zen instrukzioa eta han dago Foruzaingoaren txostena, bera izan baitzen auziaren ardura hartu zuena eta auzian eskuduna dela uste dugu".

Deialdia

Manifestazioa larunbatean, 12:00etan, aurkeztuko da, Iortia kultur gune pareko plazan. Jende asko bildu nahi duen prentsaurrekoa izan nahi du eta altsasuarrak hartan parte hartzera deitu dituzte.

Udalaren gehiengoak erakunde adierazpena onartu zuen. UPN izan zen bozketan salbuespena.

Altsasuko Udalak epaileen erabakiei errespetua adierazi die, baina gertakariei "terrorismo delitu" zigor-kalifikazioa emateareki n ados ez dagoela gaineratu du. Udalak nabarmendu du atxiloketak egitea ez zela beharrezkoa. Akordioan Altsasuko Udalak "herrian bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustua" berresten du, "elkarbizitza horretan aurrera egiteko elkarrizketa eta guztion arduradunarrera indartuz". Aldi berean, udalak "erabateko arbuioa" azaldu du "gure herriaz eman den irudiaz, ez baitu errealitatearekin zerikusirik". Aipatu hedabideetan gazteen bizitza pribatuari eta adin txikikoei buruzko informazioekiko ere arbuioa azaldu du Altsasuko Udalak.

Senideek astearteko manifestazioko pankarta eraman zuten.

Senideek Altsasuri esker ona azaldu diote

Senideek adierazpenik ez egitea erabaki dute. Hala ere, udalaren herenegungo ezohiko bilkuran eskerrak emateko hartu zuten hitza: "mundu guztia eskertu nahi dugu. Esker ona beste hitzik ez dugu. Hau zentzugabekeria da. Gaindituak gaude. Ez dakigu ezer. Norbaitek nahikoa zentzua eta neurritasuna izatea nahi dugu".

Herriak eman duen "gizalege irudiagatik" eskerrak eman zituzten, "gazteek bereziki, eta herriak orokorrean. Istilu bat bera ere ez da egon. Ezer ez. Hori da nahi dugu-na, bakean bizi". Lasaitasunerako eta normaltasunerako deia berretsi zuten. Semeak bueltan etortzea nahi dute, "etorkizuna izan dezaten". Haiendako "bidezko epaiketa" izatea eskatu dute, "behar bezalakoa, gertaeren mailaren araberakoa".

Joan den astean hedabideetan seme-alaben izen-abizenak argitaratzean senideek antolatzea erabaki zuten. Atxiloketak izan ziren egunean bertan udaleko ordezkariekin elkartu ziren eta gerora udaleko bozeramaileen batzordeak onartuko zuen adierazpenaren oinarria izan da.

Hedabideak udalaren asteleheneko adierazpenaren berri jasotzen.

Senideak herenegungo udal bilkuran izan ziren eta, une batez, hitza hartu zuten.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 197 070
Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza
www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza, 23-1 Altsasu · 948 564 275 · gk@gkomunikazioa.eus
gk KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK | 2 TEKNOLOGIA | 3 LANA/NEGOZIOAK | 4 DENETARIK | 5 IBILGAILUAK | 6 HARREMANAK | 7 AISIA/KIROLA | 8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proeiktua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Errefuxiatuendako material bilketa. Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAk. Altsasun, Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajeran, astelehen eta ostiraletan, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzen, udaletxeko estalopeko eskubiko atean, astearte eta ostiraletan 17:00etatik 19:00etara.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Odol-emaileak. Azaroa: Olaztin 22an, 17:00-20:30. Abendua: Arbizun 1ean, 17:00-18:00 eta Lakuntzan 19:45-20:45

OPARITUTAKOAK

Border Collie txakurkumeak oparitzen dira. Tel 699 780 772

OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10.

JAIOTZAK

- **Xune Urritza Jungitu,** azaroaren 9an Bakaikun.

HERIOTZAK

- **Maria Asunción Beunza Ostiz,** azaroaren 1ean Irurtzunen.
- **Martin Fernando Lezea Olmos,** azaroaren 8an Altsasun.
- **Roman Lizarraga Perez,** azaroaren 8an Iturmendin

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Beste objetu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

kirola >>

Pilota

Iñigo Aritza Pilota Txapelketa: 4. jardunaldia

Igandean, 16:30ean, Iñigo Aritza ikastolako frontoian

Igandean Iñigo Aritza Pilota Txapelketako 4. jardunaldia hartuko du izen bereko ikastolako pilotalekuak, 16:30ean. Lehen Hezkuntzan, atzeratutako partidak jokatuko dira eta DBH mailan, aldiz, 4. jardunaldikoak

Iñigo Aritzako asteburuko jardunaldia

Igandean, 16:30ean, ikastolan:

LH4:

A taldea:

Aimar Igoa / Ekia Andueza

LH6:

B taldea:

Aimar Gracia / Eneko Andueza

DBH1:

A taldea:

Gorka Ruiz / Irati Lumbreras
Olatz Galartza /Ander Goikoetxea

B taldea:

Amaiur Zubiria /Aritz Sevilla
Araitz San Roman / Arkaitz Agirretxe

DBH2:

A taldea:

Aritz Ulaiar / Angel Bergara
Ekhi Olabide / Jokin Senar
Angel Bergara –/ Jokin Senar

Irristaketa

Sutegiren omenaldi polita Fernandezi

UTZITAKOA

Sutegi Irristaketa Taldekoek talde argazkia egin zuten Ioseba Fernandez irristalariarekin. www.guaixe.eus orrian, ekitaldiko argazki galeria.

Iturmendiko irristalariak Sutegi Irristaketa Taldeko 50etik gora irristalariei klasea eman zien eta klubak omenaldia egin zion

Oso pozik dago Sutegi Irristaketa Taldeko entrenatzailea, Juli Acebes. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, ostiralean Erburua kiroldegian antolatutako jaialdia borobil-borobila atera zitzaien. Munduko irristalaririk onenen artean dagoen Ioseba Fernandez Fernandez iturmendiarraren bisita jaso zuten Sutegi Irristaketa Taldeko neska-mutikoak, eta liluratuta geratu ziren berarekin.

"Sutegitik Iosebari errekonozimendua egin nahi genion. Ioseba munduko irristalaririk onenetakoa da. Munduko txapelduna izan da eta pistako 200 metroko erlojupekoko errekorra berak du, beste lorpen askoren artean. Eta omenaldia egin nahi genion" azaldu digu Acebesek. Ekitaldia oso hunkigarria izan zen, Ioseba Fernandezek bere irristaketa hasierak Sakanan egin zituelako. "Urdiaingo eskolan hasi zen eta gero Altsasukora pasa zen. Nire ikasleetako bat izan zen, nire "haurretako" bat, maiteminduta naukana" gaineratu du entrenatzaileak, irribarrez. Izan ere, Sakanako irristalari gehienak trebatu dira Acebesekin, baina gutxik lortu dute Fernandezek lortutakoa. Eta iturmendiarraren lorpenak gogo biziz ospatzen ditu Julik.

Klase magistrala

Ioseba Fernandezek lehenik eta behin klasea eman zien Sutegiko neska-mutikoei. Eskolan 64 ikasle daude eta horietatik 50 baino gehiago bildu ziren Erburuan. Beroketa ariketak eta luzapenak egin zituzten Fernandezekin eta iturmendiarrak posturen azalpenak eman zizkien. Ondoren jokoak egin zituzten eta, jakina, Iosebarekin argazkia ateratzeko aukera ez zuten alferrik galdu. Bukatzeko, Sutegik oroigarria eman zion irristalari iturmendiarrari eta ondoren bere ibilbideari buruzko hitzaldia eman zuen Fernandezek, Sakanako bere hasieretatik abiatuta. Lortutakoen errepasoa eginda, egungo materialez ere mintzatu zen iturmendiarra eta bildutako jendetzaren galderak erantzun zituen. "Ekitaldia primeran joan zen, espero genuena baina hobe. Ioseba bezalako irristalari bikaina hemen izatea handia da gero" aitortu zuen Acebesek.

Egun Juli Acebes Olaztiko Sutegi irristaketa taldeko eta Urdiaingo Aitziber irristaketa taldeko entrenatzailea da. Ez du lehiaketako taldea prestatzen.

»

Petriati kanpo eta Olaetxea aurrera

Nafarroako Gazteen Lau t´erdiko Txapelketako final hamaseirenak jokatu dira egunotan

Nafarroako Gazteen Lau t´erdiko Txapelketako edo Guillermo Mazo Memorialeko final hamaseireneko partidak jokatu dira, egunotan, Etxarrenen eta Lekunberrin. Tartean, Arbizuko Aldabide taldeko Petriati eta Olaetxea lehiatu ziren asteazkenean Lekunberrin. Euren taldekide Goikoetxea ere lehiatzekoa zen, baina lesioagatik txapelketa utzi behar izan du.

Petriati txapelketatik kanpo geratu da, Umore Onako Aizkorberen kontra galdu eta gero; aldiz, Olaetxeak aurrera egin du, Bortziriak taldeko Elzaurdia bidean utzi eta gero.

Lekunberriko emaitzak

Salaberria (Erreka) **18** – Aiala (Zugarralde) **6**
Aizkorbe (Umore Ona) **18** – Petriati (Aldabide) **16**
Olaetxea (Aldabide) **18** – Elzaurdia (Bortziriak) **7**
Txoperena (Aurrera) **18** – Goikoetxea (Aldabide) **0**

(Aldabide erretiratu da, lesioagatik)

Pilota

Joseba Ezkurdiak 2019ra arte berritu du Asperekin

Arbizuarrak oso pozik dagoela azaldu du

Aurreko ostiralean Joseba Ezkurdiak eta Aspeko Fernando Bidartek arbizuarrak Eibarko promotorarekin zuen kontratua beste hiru urterako sinatu zuten.

Pozik

Aurrelari arbizuarrak Aspen jarraituko du 2019ra arte. Abenduan despeditzen zen Ezkurdiak Asperekin sinatua zuen kontratua. "Pozik nago gustuko dudana egiteko aukera dudalako nahi dudan enpresan. Bertan lan egiten duen jendearengatik bereziki; bikaina da hemengo giroa" adierazi zuen Ezkurdiak Aspeko web orrialdean.

Binakakoa prestatzen

Lau t´erdiko finalerdietatik kanpo utzi zuen Bengoetxea VI.ak Joseba Ezkurdia. Arbizuarrari salto hori ematea falta zaio, final baterako sailkatzea, atarian geldi-

Joseba Ezkurdia, kazetarien galderak erantzuten.

tu izan baita maiz. "Ahal dudan guztia ematen jarraituko dut eta txapelketetan ahalik eta goienean egoten saiatuko naiz" gaineratu zuen. Aurki hasiko den Binakakoan du burua Arbizuko aurrelariak.

Ongay Uharteko lau t´erditik kanpo

Uharte Iruñeko Toki Alai pilotalekuak Uharteko lau t´erdiko txapelketako final zortzirenetako partidak hartu zituen asteazkenean. Tartean, Irurtzun klubeko Alberto Ongay satrustegiarrak Buruzgain taldeko Otxandorena izan zuen aurkari. Partida oso lehiatuan, azkenik Otxandorenak egin zuen aurrera, satrustegiarrari 22 eta 19 irabazita.

Kiroldegia

Sakanako kirolaririk onenak proposatzeko deia

Mank-ek 2015 eta 2016ko kirolaririk onenak aukeratuko ditu. Bidali zure proposamena

Bi urtetik behin Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak eskualdeko kirolari eta taldeak saritzen ditu. Horrela, aurten 2015 eta 2016ko Sakanako kirolari onenak aukeratu eta sarituko dira. Aukeraketa prozesuan laguntzeko sakandar guztiei euren proposamenak bidaltzeko deia egin die Mank-ek. "Zenbat eta proposamen gehiago jaso, orduan eta aukera gehiago izango dituzte kirolari guztiek aukeratuak izateko" azaldu dute Mank-eko kirol zerbitzutik.

Emango diren sariak

Ondoko sariak banatuko ditu Mank-ek: 2015-2016ko 35 urte baino gehiagoko Sakanako kirolaririk hoberena (gizona eta emakumea), 2015-2016ko 18 urte baino gehiagoko Sakanako kirolaririk hoberena (gizona eta emakumea), 2015-2016ko 18 urte baino gutxiagoko Sakanako kirolaririk hoberena (gizona eta emakumea), 2015-2016ko Sakanako kirol talderik onena eta 2015-2016an euskara gehien bulkatu duen taldea. Horretaz gain, epai mahaiak, hala erabakitzen badu, bi aipamen berezi eman ditzake, kirolean egindako lana.

Azaroaren 21a baino lehen

Proposamenak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 21eko 12:00ak baino lehen, Mank-en (948 464 866, kirolak@sakanamank.eus). Horretaz gain, Irurtzungo kultur etxean eta Altsasuko Kirol Zerbitzuan aurkeztu daitezke proposamenak, hautagaien curriculuma gaineratuz.

2013 eta 2014ko Sakanako kirolari onenak. ARTXIBOA

Aurreko sarituak

2013 eta 2014 urteko Sakanako kirolari onenen sariak Joanes Bakaikoa pilotariak, Maialen Aramendia txirrindulariak, Aritz Munarriz korrikalariak, Sara Lizarraga borrokalariak, Javi Moreno korrikalariak, Mari Gwen Davies korrikalariak, Sakanako Irristaketa Taldeak eta Andra Mari ikastolako herri kirol taldeak jaso zituzten. Luis Martil karate irakaslearendako eta Ricardo Lopez de Sabando pilota irakaslearendako aipamen berezia izan zen.

Atletismoa

67 sakandar Behobia-Donostian

Mikel Berdud altsasuarra izan zen sakandarren artean azkarrena, 355 postuan sartuta (1:16:31)

Beste behin, irudi bitxi eta ikusgarriak utzi zituen igandean jokatutako 52. Behobia-Donostia lasterketa herrikoiak (20 km). Aurreko urteko berotzarra albo batera utzita, aurten eguraldi freskoa eta euria izan zuten korrikalariek, lasterkan aritzeko eguraldia askoz ere aproposagoa. 31.276 korrikalari zeuden izena emanda lasterketa nagusian, eta horietatik 25.228k hartu zuten irteera. Hortaz, %19a geratu zen parte hartu gabe. 25.077 korrikalari iritsi ziren helmugara, eta horietatik 936 deskalifikatu zituzten. Bestalde, 151 korrikalarik utzi behar izan zuten proba. Proba nagusiaz gain, handbiken eta gurpildun aulkien lasterketa, irristalariena eta Gazte lasterketa (4,4 km) jokatu ziren igandean, eta larunbatean Behobia Txikia antolatu zuten Anoetan.

Giro bikaina izan zen proban. Argazkian, Eider Carrion. UTZITAKOA

Horiek izan ziren lasterketa ezagunaren datu batzuk. Aipatzekoa da proba nagusiko irabazleak Carles Castillejo (1:00:19) eta Aroa Merino (1:10:55) izan zirela. Castillejok bigarren Behobia irabazi zuen jarraian, iaz ere txapelduna izan baitzen, eta Behobia-Donostiako errekor berria ezarri zuen. Ordu bateko errekor berri hau gainditzea zaila izanen da.

Sakandar gutxiago

Proba despeditu zuten korrikalarien artean 1.553 korrikalari nafar zeuden. Sakandarrei dagokienez, parte-hartzea jaitsi dela aipatu beharrean gara. Aurreko urteko edizioan 85 sakandarrek lotu zituzten behobia eta Donostia, eta aurten 67 izan ziren, 18 gutxiago. Mikel Berdud altsasuarra izan zen azkarrena (1:16:31), helmugan 355. postuan sartu eta gero. Eta, emakumezkoetan, Maria Goikoetxea etxarriarra izan zen sakandarren artean gailendu zena, helmugara 5.929. postuan sartu eta gero (1:34:58).

Sakandarrak 52. Behobia-Donostian (20 km):

Gizonezkoak:

1.	Carles Castillejo (Viladecans)	1:00:19
355.	Mikel Berdud (Alts.)	1:16:31
373.	Mikel Satrustegi (Arrua.)	1:16:40
395.	Joxeja Maiza (Etx.)	1:16:52
533.	Alatz Agirre (Arb.)	1:18:12
650.	Iñaki Azkona (Irur.)	1:19:02
690.	Iñaki Alvaro (Alts.)	1:19:15
894.	Fran Araña (Arb.)	1:20:28
1.263.	Emilio Guirado (Alts.)	1:22:44
1.446.	David Mutiloa (Irur.)	1:23:43
1.524.	Aritz Etxeberria (Alts.)	1:23:59
1.592.	Martin Somocurcio (Alts.)	1:24:14
1.611.	Xabier Aierdi (Alts.)	1:24:20
1.618.	Iban Gonzalez (Urd.)	1:24:22
1.621.	Jorge Iradi (Alts.)	1:24:22
1.920.	Alberto del Rio (Alts.)	1:25:28
1.939.	Asier Estarriaga (Etx.)	1:25:35
1.961.	Gaizka Diaz de Garaio (Alts.)	1:25:38
1.978.	Adolfo Lopez (Irur.)	1:25:41
2.148.	Juan Carlos Villalobos (Alts.)	1:26:18
2.313.	Pedro Jose Rodriguez (Iraň.)	1:26:53
2.443.	Jon Arellano (Alts.)	1:27:19
2.446.	Javier Riezu (Alts.)	1:27:20
2.562.	Asier Palacios (Alts.)	1:27:38
2.656.	Alejandro Pain (Alts.)	1:27:53
2.665.	Mikel Goikoetxea (Etx.)	1:27:55
2.692.	Santi Agirre (Iturm.)	1:27:59
2.869.	Gorka Perianez (Alts.)	1:28:27
3.259.	Jesus Bengoetxea (Alts.)	1:29:18
3.384.	Iñigo Tobar (Alts.)	1:29:33
3.498.	Mikel Manero (Alts.)	1:29:45
3.645.	Kaxi Estarriaga (Etx.)	1:30:07
3.925.	Izai Mauleon (Etx.)	1:30:50
4.365.	Jose Jabier Beregaña (Uhart.)	1:31:51
4.571.	Imanol Guerrero (Alts.)	1:32:16
4.628.	Xabier Zabaltza (Arb.)	1:32:25
4.874.	Ruben Cantero (Alts.)	1:32:55
5.021.	Jose Ramón Ramirez (Alts.)	1:33:14
5.193.	Eneko Otsagabia (Lak.)	1:33:31
5.220.	Xabier Urrestarazu (Etx.)	1:33:34
5.554.	Asier Leitza (Arb.)	1:34:13
5.605.	Carlos Mañeru (Alts.)	1:34:19
6.114.	Iban Martin (Arb.)	1:35:19
6.721.	Eduard Casanovas (Irur.)	1:36:25
6.743.	Juan Pedro Ariz (Alts.)	1:36:28
9.366.	Egoi Mtnez. de Esteban (Etx.)	1:40:26
9.428.	Alberto Agirre (Alts.)	1:40:33
10.110.	Victor Isturiz (Irur.)	1:41:40
11.322.	Koldo Isturiz (Irur.)	1:43:33
14.663.	Joxe Mari Merzero (Unanu.)	1:49:07
15.112.	Egoitz Carrion (Irur.)	1:49:49
16.169.	Antonio Javier Blanco (Alts.)	1:51:39
16.897.	Jose Ignazio Reparaz (Arb.)	1:52:55
19.653.	Iñaki Mauleon (Etx.)	1:58:44
20.951.	Mikel Azkargorta (Olaz)	2:02:33

Emakumezkoak:

5.929.	Maria Goikoetxea (Etx.)	1:34:58
8.273.	Marian Ijurra (Arb.)	1:38:48
9.363.	Raquel Sanchez (Etx.)	1:40:26
11.951.	Maria Goena (Etx.)	1:44:34
16.044.	Eider Carrion (Irur.)	1:51:25
16.528.	Haizea Ramirez de Alda (Alts.)	1:52:16
16.537.	Ginesa Lopez (Alts.)	1:52:17
17.869.	Isabel Pozueta (Alts.)	1:54:49
17.871.	Maite Zornoza (Alts.)	1:54:49
17.872.	Marta Diego (Alts.)	1:54:49
20.958.	Ane Lizarraga (Arb.)	2:02:34
22.699.	Anne Claver (Alts.)	2:10:39
23.109.	Maria Goikoetxea (Etx.)	2:14:16

Areto futbola

Partidarik galdu gabe jarraitzen du Magna Gurpeak

5 eta 2 irabazi zion Zaragozako Rios Renovablesi eta gaur El Pozoren kontra jokatuko du

Lehen mailako sei partida jokatuta, ibilbide egokiari jarraitzen dio Magna Gurpea Xotak, oraindik ez baitu partidarik galdu. Ostiralean, Anaitasunan, Zaragozako Rios Renovables taldea izan zuten aurkari. Imanol Arregiren mutilei kosta egin zitzaien kantxan kokatzea, baina markagailuan aurreratu ziren,, Yoshikawak sartutako golari esker. Denboraldiko lehen gola sartu zuen japoniarrak. Baina Zaragozak berehala berdindu zuen. Eseverrik berriro Xota aurreratu zuen –hat tricka sartu zuen kapitainak, 3 gol– baina atsedenaldia baino lehen bina berdindu zuen Zaragozak. Bigarren zatian, penalti bati esker 3 eta 2 aurreratu ziren Imanol Arregiren mutilak. Bukaeran Eseverrik laugarrena sartu zuen eta Jesulitok, azken unean, bosgarrena.

"Hoberenak izan gara eta irabaztea merezi izan dugu. Hasieran ataskatuta geunden. Baina azkenean hiru puntu oso konplikatu eta justu lortu ditugu" azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

El Pozo zain

Lehen mailako liderra Futsal Sakana da (16 puntu). Magna Gurpea Xota 6.a da (12 puntu). Gaur El Pozo Murciaren kontra ariko dira berdeak, 21:00etan, Murtzian. Ligako oilarretako bat da El Pozo, baina puntu beharrean dago. Hortaz, partida oso konplikatua espero da.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

9. JARDUNALDIA

MUTILBERA 2 – LAGUN ARTEA 0
BETI CASEDANO 2 –ETXARRI ARANATZ 1
Jardunaldi kaxkarra gure taldeendako. Mutilberak eta Lagun Arteak lehia bizia eskaini zuten. Lehen zatian Mutilberak dominatu zuen eta gol bat sartu zuten. Lagun Artea gogotsu aritu zen, makina bat gol aukera sortuz, baina ez zuten asmatu. Bukaeran bigarrena sartu zuen Mutilberak eta punturik gabe itzuli ziren txuriak. Casedan, bestalde, lehen zatian ez zen dominatzaile argirik egon. Nolanahi ere, Beti Casedano aurreratu zen. Etxarriarrek ez zuten etsi eta Xabatek berdintzea lortu zuen. Ezusteko jokaldi batean Betik bigarren gola sartu zuen, garaipenarena, eta horrela despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1.	Bidezarra	20 p
7.	Lagun Artea	14 p
14.	Etxarri Aranatz	8 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA – BETI CASEDANO
(Igandean, 15:45ean, Lakuntzan)
ETXARRI ARANATZ - AIBARES
(Igandean, 16:00etan, Etxarri Aranatzen)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

8. JARDUNALDIA

SALESIANOS 0 – ALTSASU 0
Salesianosek hartu zuen, berehala, baloiaren jabetza. Gol aukera argiak sortu zituzten, baina ez zuten asmatu. Bigarren zatian joera berberak jarraitu zuen; Altsasuk ongi defendatu zuen eta gol aukerak ere izan zituen, baina ez zuen asmatu. Egoera okertzeko, altsasuarrei 93. minutuan gol bat baliogabetu zieten, polemika tarteko. Husnako berdinketarekin despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1.	San Jorge	18 p
8.	Altsasu	8 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU – PAMPLONA
(Igandean, 15:45ean, Dantzalekun)

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

9. JARDUNALDIA

ITAROA HUARTE 6 – ALTSASU 1

Sailkapena >>

1.	Burlades	22 p
14	Altsasu	3 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASUK atseden jardunaldia du.

Futbola

Sakanako Futbol Topaketak jokoan

Igandean kimuen mailako 4. jardunaldia jokatuko da eta benjaminen mailako 2. jardunaldia

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Futbol Topaketak martxan daude. Aurten bi mailatan lehiatuko dira futbol taldeak, benjaminetan (8 talde) eta kimuetan (6 talde).

Sakanako Futbol Topaketak

Kimuen 4. jardunaldia (igandean):
10:00etan: Tipi-Tapa – Sutegi (Dantzalekun)
12:00etan: Lagun Artea – Urdiain (Lakuntzan)
12:30ean: Etxarri Aranatz – Kaixo (Etxarri Aranatz)
Benjaminen 2. jardunaldia (igandean, Olaztin)
10:00etan: Seguros Sayas – Lagun Artea 1
10:50ean: Txartel – Sutegi
11:40ean: Mediolanum – Urdiain
12:30ean: Etxarri Aranatz – Lagun Artea A

Txirrindularitza

Rural Kutxa-Seguros RGA taldea, kontzentratuta

2017 denboraldia prestatzeko

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko txirrindulariak kontzentratuta daude egunotan Tuteran, Bed4U hotelean. Talde profesional kontinentaleko eta afizionatuen mailako taldeko txirrindulariak daude bilduta, larunbatera bitartean. 2017 denboraldia prestatzea da helburua. Afizionatuen taldean Odei Juango lakuntzarrak eta Eneko Aramendia iturmendiarrak jarraitzen dute, Alberto Mazkiaran zuzendari altsasuarraren aginduetara.

Automobilismoa

Goñi eta Aribe hamargarrenak Kontrabandisten Rallysprintean

Beola eta Iratzoki gailendu ziren

Asteburuan I. Kontrabandisten Rallysprinta jokatu da Zugarramurdi-Urdaxen. Parte-hartzaileek hiru eremu osatu behar zituzten eta azkarrenak Joseba Beola eta Jose Luis Iratzoki (Mitsubishi Evo X) izan ziren (34:46). Sakana Motorsport taldeko Etxeberriko Garikoitz Goñi pilotua eta Iñaki Aribe kopilotua (Renault Megane) hamargarrenak sailkatu ziren (41:11).

Atletismoa



Ginesa Lopez eta Raul Audikana Sakanako Atletismo Kopako buru

Abenduaren 8ko Barrikarteren Oroimenezko Lasterketak erabakiko du Kopa

Sakanako Herri Lasterketa jokatu ondoren, honela dago XII. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sari Nagusia: emakumezkoetan Ginesa Lopez altsasuarra doa buruan, Maite Zabaletaren eta Izaskun Beunzaren aurretik, eta, gizonezkoetan, Raul Audikana da lehena, Alberto Martinezen eta Sergio Garcia de Eulateren aurretik.

Soilik lasterketa bat gelditzen da Sakanako Atletismo Kopa erabakitzeko, abenduaren 8an Altsasun jokatuko den XXXVI. Barrikarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketa, Zubeztia elkarteak antolatutakoa.

Futbola

Altsasu, emakumezkoen bi taldeak

Altsasu Emakumezken Erregionala (Futbol 11)

ATEZAINAK: Izaskun Ruiz de Egino, **HEGALAK**: June Garcia de Albeniz, Ana Gonzalez, Esther Ondarra, Saioa Escudero, Ekiñe Razkin, Maider Cruz, Maider Amama, Janire Lopez, Mirentxu Goikoetxea, June Leza, Maialen Ijurra eta Ioana Lopez. **ERDILARIAK**: Sandra Gasco, Alicia Elizalde, Irati Iriarte, June Alzelai, Aroa Cerezo, Ane Lizarraga, Edurne Alonso eta Maalen Beraza. **AURRELARIAK**: Irati Igoa, Amets Oteiza (hegalean ere) eta Sonia Alonso. **ENTRENATZAILEAK:** Asier Arregi eta Endika Mendinueta.

Emakumezkoen erregional mailan estreinatu da aurten Altsasu. Bestetik, kategoria txikikoak, Futbol 8 mailan dabiltzan Altsasuko neskei, multzo gogorrena suertatu zaie baina gora egingo dutela uste dute

Sociedad Deportiva Alsasuaren lorpen nagusietako bat emakumezkoen bi talde sortzearena izan da. Lehendabizi kategoria txikiko taldea sortu zuten, Emakumeen Futbol 8 mailakoa –haurren eta kadeteen maila–, eta aurten emakumezkoen goi mailako taldea sortu dute, Erregionala, Futbol 11koa. "Bi urteko epean nesken bi talde sortu ditugu. Ez daude emakumeen kategoria gehiago. Lan handia izan da sortzea, asko kostatu zaigu. Ordura arte neskak, normalean, haurren mailara arte aritzen ziren eta gero futbola utzi egiten zuten eta gutxi batzuk Agurainera edo beste talde batzuetara jotzen zuten. Baina, lan handia egin ondoren, bi taldeak sortu ditugu. Sakanako neskak dira gehienak, baina Aguraingo emakumezkoen taldea desagertu da ere eta bertako neska batzuk gurera etorri dira, erregional mailara" azaldu digu Sociedad Deportiva Alsasuako futbol koordinatzaile Gorka Paskuak, pozik.

Emakumezkoen futbola sustatzeko lana norbaitek egin badu, zalantzarik gabe, Gorka Paskua izan da. Aguraingo futbol taldean eman zituen urte asko, tartean emakumezkoen futbola sustatzen. Altsasura itzuli zen eta bere helburuetako bat lortu du, emakumezkoen futbol taldeak sortzea. "Orain nahi duguna da, kategoria txikietatik nesken futbola sustatzea, neskak euren artean jokatzen jartzea, horrela Futbol 8 talderako harrobia izateko eta gero Erregional taldea elikatzeko" gaineratu du Paskuak.

Bidea egiten

Futbol 8 mailako taldean adin ezberdinetako neskak daude, 2002an jaiotakoak eta 2007an jaiotakoak. Alde hori nabaritzen da, baina pixkanaka harrobia gehiago bideratzeko modua izango dutela uste du Paskuak. "Bi taldeek denboraldiari gogoz ekin diote. Egia esan, emaitzak, momentuz, ez dira oso onak. Txikiei multzo gogorrena tokatu zaie, talde onenekin batera ari dira, baina nik uste dut Altsasuk gora egingo duela. Gogoa dute, garra… Badakit beste taldeak nolakoak diren eta uste dut gora egingo dutela. Eta Erregional mailako taldea ongi dabil, baina, akaso, bere buruarekiko konfiantza gehiago izatea falta zaie, bere aukerengan gehiago sinistea" gaineratzen du futbol koordinatzaileak.

Erregional mailako taldean, urte asko futbolean aritu gabe futbolera itzuli diren neskak edo areto futbolean aritu direnak daude, eta Paskuak dioen bezala, "futbola desberdina da. Ikusten da taldeko helburuak lortzen ari direla, hobekuntza nabaritzen da. Baina oraindik lan handia dago egiteko. Dena den, oso ongi lan egiten ari dira" nabarmendu du Paskuak. Koordinatzaileak aitortu duenez, emakumeekin modu ezberdinean egin behar da lan. "Gauzak tentu handiagorekin esan behar zaizkie, euren portaera ulertu behar duzu, euren gainean egon… Ildo horretan, ezberdinak dira neskak" azaltzen du.

Ateak zabalik

Altsasuk Sakanan emakumeen futbola sustatzen jarraituko duela argi du. "Sakanako edozein neskak futbolean aritu nahi badu, etorri dadila gugana. Neska txikiengana iritsi nahi dugu. Izan ere, orain neska txikiak hasten ez badira, aurrerago ez dira egongo eta horrek gure talde nagusiak harrobirik gabe geratzea ekarriko du eta etorkizunean talderik gabe gera gaitezke. Emakumezkoen futbola sustatzen jarraituko dugu eta aurten txapelketa txikiren bat edo antolatu nahi dugu, sustatzeko".

Altsasu Emakumezkoen Futbol 8 taldea

ATEZAINAK: Maider Granizo. **ATZELARIAK**: Naroa Barriola, Ainhoa Agirre eta Saioa Sayas, **ERDILARIAK**: Udane Bergara, Aida Sanchez, Jone Apaolaza, Aintzira Arretxe, Nahia Lopez de Goikoetxea, Nahia Moran eta Ekiñe Agirre. **AURRELARIAK**: Maddi Mariñelarena, Nerea Arellano eta Iraide Bergara. **ENTRENATZAILEAK**: Maalen Beraza eta Ane Cantero.

Non erabili

LIBURUNDA
ALTSASU
%5eko deskontua papertegian.

GOIKO LOREDENDA
ALTSASU
30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA
ARBIZU
Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

FRUITIS FRUTA DENDA
IRURTZUN
%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIAK
ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA
ALTSASU
100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA
ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO
ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

kultura >>

MUSIKA ETA MUNSTROAK: Bihar, 23:00etan, Altsasuko gaztetxean Banane Metalik talde frantziarra ariko da. Rock and roll eta punk doinuak nahasten dituzte. Emanaldietarako oholtza dekoratu eta musikariak zonbi eta munstro makillajearekin aritzen dira jotzen.

Izarrak gurekin daude

Gitarra eta ahots kordak. Akonpainamendu pixka batekin. 4nek, Luisillo Kalandraka eta Lur, Hi de bei, Tximeleta eta Fran eta Zuriñe musikariek euren sormenaren laginak utzi zituzten Iortia kultur gunean; Sakanako euskarazko kantagintzaren erakusleiho bihurtu zen oholtzan. Ibarreko euskal kantagintzaren kalitatea deskubritu zuten aretoa betetzen zutenetako askok; gozatu, denek.

Lakuntzako kultura diagnosiaren aurkezpena

Larunbatean, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxean

Lakuntzako Udaleko Kultura Batzordeak herriak kultura arloan duen egoera aztertu eta aurrera begirako plangintza osatzeko diagnosia egin du. Lakuntzarren iritzia jasotzeko Internet bidezko inkesta zabaldu zuen. Haren bidez, herritarrek duten denbora librea noiz eta non pasatzen duten, eginen lituzketen jardueren inguruan, egungo kultur eskaintzaz eta herriko eragileek sustatzen dituztenez galdetu zieten. Udalak ere lakuntzarren behar eta proposamenak jaso zituen prozesu horren bitartez. Lakuntzan kulturak duen diagnosia bihar aurkeztuko dute.

Bestalde, gaur, 22:30ean , Lakuntzako kultur etxean Jimmy Muelles bakarlariaren eta Zesura euskal rap taldearen kontzertua izanen da.

Olerkien berora

Poesiak erakarrita 30 bat pertsona elkartu ziren Uharte Arakilgo jubilatu elkartean larunbatean. Blanca Arrizabalaga, Alfonso Muro, Inma Biurrun, Mercedes Viñuela eta Tomas Yerro olerkariak euren poesiak errezitatu zuten. Mikel Auzmendi gitarra-jole etxarriarraren doinuen laguntzaz aritu ziren poetak. Gertu izandako hildakoak, zoriontasuna, maitasuna eta kritika soziala izan ziren poesiaren mamia. Olerkarien errezitaldiaren ondoren, mokadu bat janez haiekin iritziak partekatzeko aukera izan zen.

Karasatorre Izeta sariketan aritu zen

Izeta bertso sariketako finala Elizondoko Kortarixar jatetxean jokatuko da gaur, 21:00etan. Han ariko dira Alazne Untxalo, Iker Gorosterrazu, Joanes Ilarregi eta Patxi Castillo. Barañainen jokatutako kanporaketan 10 bertsolari gazte aritu ziren, haien artean Saats Karasatorre. Finalerako txartelak 948 143 747 telefonoan edo nafarroa@bertsozale.eus posta elektronikoan erreserbatu daitezke

bazterretik

Ilazki Martiarena

MODA, ILEAPAINDEGIA ETA GASTRONOMIA ELKARREKIN

Moda izan zuten inspirazio iturri ile-apaintzaileek eta sukaldariek beren diseinu berriak eta proposamenak erakusteko, urriaren 22an Baluarten ospatu zen Trending Chef ekitaldian.

2016ko Trending Chef edizioan 14 diseinatzailek hartu genuen parte, eta gutako bakoitzak bere estilismoa erakutsi zuen. Arropa diseinuetan inspiraturik, sukaldari ospetsuek plater bana sortu behar zuten eta jantzien diseinuarekin bat egin. Ile-apaintzaileek ere berdin egin behar zuten, ilearekin artea. Horren guztiaren emaitza bukaeran egin zen desfilean ikusi zen; bertako ikusleek, gainera, Antonio Garrido ile-apaintzailea aukeratu zuten irabazle eta sukaldari onena, berriz, Iñaki Andradas, Baserri jatetxeko sukaldaria. Azken hau, nire jantzien diseinuan inspiratu zen bonbilla itxurako platera sortzeko. Mikel Muruzabal argazkilariak, ongi gorde ditu bere argazkietan han sortu eta agertu zen guztia. Aipatzekoa da ekitaldi hori Deyavu Models agentziaren eskutik antolatu zela.

Aurtengo edizioa laugarrena izan da, eta niretzat bigarrena. Nik bertan arropa diseinatzaile bezala hartu dut parte. Gogoan dut hasieratik, ekitaldian partaide izateko aukera eskaini zidaten momentutik, ilusio eta ardura handiko desafioa izan zela niretzat, eguneroko errutinatik aparte gelditzen zen proiektu bat.

Diseinu esklusibo eta berezia sortu nuen desfile horretarako. Hainbat faktore hartu behar nituen kontuan. Esate baterako, originala izan behar zuen eta ez deigarriegia, izan ere, ile-apaintzailearen eta sukaldariaren lana nabarmendu behar ziren, batez ere; eta eroso janzteko moduko arropa behar zuen izan, ile-apaintzaileen lana hondatu ez zedin eta modeloek janari platera eramaterakoan besoak libre eduki zitzaten.

Goiko argazkian ikus daiteke aurkeztu nuen diseinua, detaile asko falta dira baina itxura bat hartzeko balio du. Erabili dudan materiala ez da ohikoa, ez da arrunta; adibidez, hor ikusten den oihal txuria, zapatak egiteko erabiltzen den oihala da, eta oihal horia, hamakak egiteko erabiltzen dena. Material honek eman dit nik nahi nituen formak eta bolumenak lortzeko modua. Informazio gehiago jakin nahi duenak www.trendingchef.es atarian lortuko du.

PARTAIDEEN ZERRENDA:

- **Dolores Cortés**, diseinatzailearekin batera, **Alhambra jatetxea**, eta **Edurne Senosiáin ileapaindegia**.
- **Isabel Zapardiez, Otazu, eta Antonio Garrido** batera joan ziren.
- **Rosa Clara, San Fermin jatetxea, eta Jose Garcia**.
- **García Madrid, Mahel, eta Roberto hotel** batera ibili ziren.
- **Mikel Colas, Alma La Muga eta Gs ileapaintzailea**.
- **Juan BREA, Restaurant La Morea, eta Elkar** batera joan ziren.
- **Pau Esteve, Restaurant Beethoven eta Mikel Jaimerena**.
- **Xavi Reyes, Abel Alberto Mora eta Ramiro Mata.**
- **Cristina Pina, Marisol eta Cris M.C.**
- **Alicia Rueda, Antonio Arrabal eta Gonzalo Zarauza** elkarrekin izan ziren.
- **Rabaneda, Joanna Artieda eta Ziortza Zarauzak** lagunduta.
- **Jesus Lorenzo. Hiru Queens eta José Urrutia**, hauek elkarrekin desfilatu zuten.
- **Ilazki Martirena, Iñaki Zabala Andradas eta Lucia** batera joan ginen.
- **Txell Miras, Restaurant Boragos eta Marco p.m.**, hauek elkarrekin desfilatu zuten.

Ferietako argazki onenendako saria

Argazki rallyko sari banaketa larunbatean, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da. Lanen erakusketa gaurtik hilaren 28ra arte ikusgai izanen da

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak 31. aldiz antolatu du ferietako argazki rallya. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa egin ondoren banatuko dituzte sariak bihar. Helduen eta haurren mailan hiruna sari banatuko dira. Eta horiekin batera beste bi: sailkatu gabeko bazkide onenarena eta feriak gaiko argazki onenarena. Rallyan 51 argazkilarik parte hartu zuten: 44 helduen mailan eta 7 haurren mailan. Altsasuko ferietako rallyak Herriz Herri txapelketako partaide da.

Betiren tragedia ezagutu nahi?

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko Barandi tabernan

Unai Iturriagaren bakarrizketa jokatzeko Jon Zubiaga aktorea Garikoitz Kortabitarteren, Betiren larruan sartuko da *Buah txabal!* antzezlanean. 20 urte dituen gazte hori "beti" lokalean sartuta dagoelako du Beti izen txikia. Salbuespena egin eta behin, bart, herrira juergan atera eta tragedia! Telefono mugikorra galdu! Garikoitz Kortabitartek gailuaren galera hain izugarria zergatik den kontatzen duen bitartean euskararekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xelebrea ezagutuko dugu. Guztia lokaletako gazteen topikoen muturreko

Hitza eta doinua herriko memoria ariketarako

Larunbatean, 18:00etan eta 20:00etan, Arbizuko udaletxeko bilkura aretoan

Oroimenez Arbizu taldeak 1936ko estatu kolpearen ondoren herrian bizi izandakoak azaleratzeko lanean aritu da gertaeren 80. urteurrenean. Biharko proposamen berria egin dute; *hitzek eta doinubek, balen hotsetik hitzen doinura*. Ikuskizuna sortzeko ideia taldean hasieratik zuten. Baina arbizuarren parte-hartzea ezinbestekoa jo zuten. Haiei ekarpena egiteko aukera eman nahi zieten. Eta, bide batez, Arbizun dauden musikarien lana ere baliatu nahi zuten.

Horrela sortu da 14 hizlari eta 19 musikari elkartu dituen ikuskizuna. Oroimenez Arbizuk dozena bat kantu aukeratu ditu, haietako batzuk kantuak dira. Errezitatzailek musikaren laguntza izanen dute. "Kalitatezko emanaldi laburra" izanen dela gaztigatu digute antolatzaileek. Guztia behar bezala ateratzeko lanean Pello Reparaz, Katrin Ginea eta Ramoni Berastegi ari dira. Oroimenez Arbizuk 5 euroko sarrera kobratzea erabaki du. Jasotako dirua Oroimenez antzezlanak utzi zuen zuloa estaltzeko erabiliko da. Ikuskizunaren ondoren, heldu den ostiralean, Iñaki Egañak frankismoaz emanen duen hitzaldiarekin itxiko da zikloa. **+www.guaixe.eus**

Udazkeneko dantza jaialdia

Larunbatean, 18:00etan, Irurtzungo frontoian

Otxandioko Urduri eta Orritz dantza taldeetako kideek, musika lagun, bihar 17:30ean Irurtzunen barna kalejira eginen dute. Haien helburua jantzi eta musika ederraren laguntzaz irurtzundarrak frontoira erakartzea izanen da, han udazkeneko dantza jaialdia eskainiko baitute bi taldeek. Euskal Herriko dantzen sorta ederra eskainiko dute bi taldeek, jendaurrean txandakatuz. Dantzaz gozatzeko aukera ez galtzeko gaztigatu dute.

Jaialdia bi dantza taldeen elkartrukearen ondorio da. Normalean Orritzek halako jaialdiak udaberrian antolatzen ditu baina aurten ezin izan da eta udazkenera atzeratu dute. Otxandiokoekin dantzan aritu ondoren, elkarrekin afaldu eta Pikuxarren parranda eginen dute. Laguntasuna sortuta Otxandiora bisita bueltatu beharko du Orritzek.

Deialdia

Orritz dantza taldeak mutilak behar ditu. Dantzan aritu nahi duen neska-mutil sakandarrek ostiraletan, 21:30ean, Irurtzungo eskolako gimnasioan dute hitzordua.

Sukaldari eroen txanda

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Gag sorta etengabea, umore ugari, hitzik ez, onomatopeia ugari, musika eta soinu efektuak. Hitz pare batean laburtuta: keinu antzerkia. *Chef* antzezlanarekin Yllana konpainiak sukaldaritzari begirada dibertigarria eskaintzen dio. Itzal handiko sukaldari bat da protagonista. Inspirazioa galdu du eta jatetxeak dituen izarrei eusteko errezeta berri bat sortu beharko du. Horretarako, itxuragabeko talde bat du aldamenean.

Ikuskizunak sukaldaritzaren hainbat alor erakutsiko ditu: jaten ditugun jakiak, elikatzen gaituzten animaliak, egoak, sukaldarien arteko lehia... Eszenografia eta atrezo irudimentsuaren bidez istorioa gertatzen diren zortzi tokiak irudikatuko dira. Zentzugabeko egoerak ugari jokatuko dira haietan. Guztia Yllanaren umore lapikoan prestatuta, ikuslea barrez bor-bor has dadin.

Altsasutik Antzerkiñora

Tarima Beltza antzerki taldeak Abadiñoko II. Antzerki Jaialdian, Antzerkiñon, parte hartuko du bihar. Ziklo horren barruan azaroko larunbat bakoitzean talde amateurren emanaldi bana iragarri dute. Altsasuko taldeak *Falstaff no cree en la otra vida* antzezlana jokatuko du.

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	45%	30%	45%	50%	45%	95%	85%
Min: / Max:	8 / 11	3 / 12	8 / 12	9 / 13	5 / 10	5 / 8	4 / 9

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	15.5	4	22.3
Etxarri A.	17.8	0.3	20.6
Altsasu	14.5	4.5	12.3
Aralar	9.4	-0.7	24.6
Urbasa	12	2	16.2

: ilargiaren aldia>>

Ilbehera	Ilberri	Ilgora	Ilbete
21	29	7	14

Bazkide zozketa

AZAROKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri · Irurtzun Xota F.S. · Camping Artaza · lacturale · gaztezulo



>>11 galdera

Nerea Bakaikoa
Ile-apaintzailea

Testua: Joana Lizarraga Marques

Mila Etxarri eta Nerea Bakaikoa, L`Oreal Colorboat kruzeroan. UTZITAKOA

1. Zein izan zen L'Orealen kruzeroaren proposamena?
L'Orealek Colorboat izeneko kruzeroa antolatzen du. Han Espainiako eta Ingalaterrako ile-apaintzaile famatuak egoten dira haien kolekzio berria aurkezteko. Gonbidatuak joaten garen profesionalek haiengandik ikasten ditugu tendentzia berriak. L'Orealek antolatutako bidaiak lana eta plazerra nahasten ditu.

2. Haiek gonbidatu zintuzten edo zuek mugitu zineten kruzeroan parte hartzeko?
Ez da doako gonbidapena. L'Orealek haien produktuak aurkezten dizkigute eta guk produktu horiek erostean bidaia merkeagoa ateratzen zaigu. Hau da, produktu kantitate bat erosi beharko dugu merkeago ateratzeko, eta gainontzekoa guk ordaindu beharko dugu. L'Orealeko langileak ileapaindegietara etortzen dira kruzero hau aurkezteko. Dena haiek prestatzen dute.

3. Espainiar estatu guztiko jendeak parte hartu zezakeen?
Bai: Kanarietatik, Andaluziatik, Kataluniatik eta abar.

4. Sakandar gehiagorik topatu zenituzten?
Ez, sakandar bakarrak Mila Etxarri eta biok izan ginen. Iruñeko talde bat ere bazegoen baina ez ginen Nafarroako ileapaintzaile asko joan. Ez da proposamen hau egiten den lehendabiziko aldia, beharbada beste urteetan nafar gehiago animatu dira.

5. Zer motatako ikastaroak zeuden?
Ikastaroak guk ikusteko eta ikasteko ziren, ez lan egiteko. Kruzeroan parte hartu genuen profesionalekin taldeak antolatu zituzten jarduera ezberdinak egiteko. Ile-apaintzaile famatu horien artean Tony & Guy, Cebado, Raffael Pagues, XXL Peluqueros, Ramiro Mata edota Luis & Tachi zeuden. Ile-apaintzaile bakoitzak, haien lan taldeekin, show izugarriak prestatu zituzten. Antolakuntza aldetik bikaina izan zen.

6. Bidaiak merezi izan du?
Oso interesgarria izan da lana eta plazera nahastea eta modu desberdin honetan ikastea. Gehien bat, egungo joerak eta moden nondik norakoak ikasi ditugu Gainera, beste profesionalekin hitz egiteko eta haiengandik ikasteko aukera izan dugu.

7. Nolakoak izango dira datorren urteko orrazkera joerak?
Denetatik ikusi dugu: ile luzeak, motzak, kolore argiak, ilunak, arrastoa erdian, alde batera … Ez dago tendentzia bakar bat, ile-apaintzaile bakoitzak bere estiloa eta bilduma baitu. Tendentzia bat esateagatik, kolore aldetik, ia guztiek aurkeztu zituzten proposamenetan ilehoriak zeuden, oso modan daudelako metxa balayage-ak.

8. Zer da hori?
Teknika honek puntak argitzen ditu goiko alderantz zainak ilunagoak utziz, lehengo metxa kalifornianen jarraipen moduan. Antzekoak dira baina beste modu batean ematen dira eta argiagoak geratzen dira. Luzeraren aldetik denetarik ikusi dugu baina kapa luzeak dira tendentzia. Pare bat urtetik hona kapa luzeak ikusi ditugu. Lehen testura kentzen genuen baina orain ilea basatiagoa eramaten da, perfekzioa apurtzen. Gizonen tendentzien artean undercut mozketak jarraitzen du oraindik.

9. Desberdinak al dira beste herrialdeetako orrazkerak?
Ile-apaintzaile bakoitzak bere proposamena aurkezten du baina denek ez dute arrakasta berdina izaten. Gaur egun, sare sozialekin, moda nahiko aurreratua eta berdindua dago leku guztietan. Baina Ingalaterra, adibidez, beti egoten da pausu bat aurrerago.

10. Zein leku bisitatu zenituzten?
Bartzelonatik atera ginen igande goizean eta egun hori itsasontzian igaro genuen. Hurrengo goizean Nizara iritsi ginen eta han turismoa egiten eman genuen egun osoa. Hurrengo egunean Genoara joan ginen, Italiara, eta egun osoa egon ginen hiria bisitatzen eta, eguna bukatzean, Bartzelonara bueltatu ginen. Kruzero motza izan zen baina oso bizia gauza asko egin genituelako. Errepikatzeko esperientzia, dudarik gabe.

11. Etorkizunerako beste bidaia edo proiekturen bat buruan?
Ziur L'Oreal edo beste etxe batzuek gauza berriak prestatuko dituztela eta gu prest gaude haietan parte hartzeko.